

IBARRETXEREN PROPOSAMENA. Hauteskundeak aurreratzea ez da egokia, Azkarragaren ustez

Ibarretxe ziur da bere egitasmoarekin ETaren indarkeria amaituko dela

Espainiarekin beste itun bat egiteko proposamenak talde armatuari «kalte» egiten diola iritzi dio

Agentziak | GASTEIZ

Juan Jose Ibarretxe EAeko lehendakaria ziur da bere proposamenarekin edota «mahai gainean jar daitezkeen bestelako egitasmoekin» ETaren indarkeria amaituko dela. Izan ere, iritzi dio itun politiko berria egiteko proposamenak ETari egiten diola «kalte» handiena, bere «aurreneko helburua» talde armatua bukatzea delako.

Atzo albiste agentziekin izandako bilera batean egin zituen adierazpenok EAeko lehendakariak. Bere proposamenak piztutako eztabaida politikotik gizarteak «ETA kanpora» esango duela uste du Ibarretxek. Hasi-tako bidea «itzulezina» dela eta euskal herritarrek ETA beren bizitzetatik «errotik» aterako dutela iritzi zion.

Era berean, Ibarretxek berretsi egin zuen herri galdeketa egiteko ezinbesteko baldintza dela «ETA indarkeria behin betiko uztea». Azaldu zuenez, herriari galdetuko zaio «soil-soilik» ETAK jarduera armatua amaitzen duenean, eta «alderdi politiko guztiak beren ideiak defendatzeagatik tiroak jasotzeko beldur ez direnean». «Kontrakoa ez litzakete onargarria izango, ikuspuntu politiko, etiko eta moral batetik», adierazi zuen Ibarretxek.

Bestalde, alderdiekin bukatu berri duen elkarriketa txandaren ostean, bigarren fase bati ekingo diola, eta Ajuria Eneko ateak bereziki orain arte parte



DAVID AGUILAR / EFE
Juan Jose Ibarretxe Euzko Jaurlaritzako lehendakaria.

hartu ez dutenei «irekiko» dizkiela azaldu zuen. PPri hitz egiteko gonbita «etengabe» egingo diola esan zuen, bere proposamenaz eta «aurkeztu nahi dituen egitasmo guztiez» min-

tzatzeko. Gonbita berbera egin zion Espainiako Gobernuoko presidentea Jose Maria Aznarri ere.

Halaber, proposamena herri-tar guztiei jakinarazteko asmoa

JUAN JOSE IBARRETXE

Euzko Jaurlaritzako lehendakaria

«Herri galdeketa ETaren indarkeria behin betiko bukatutakoan egingo da»

duela adierazi zuen, eta, horretarako, herritar bakoitzari egitasmoa igorriko zaio, haren inguruko iritzia eman dezaten.

Hauteskunde aurreratuak

Euzko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburu Joseba Azkarragak ez du egoki ikusten hauteskundeak aurreratzea, EAJko EBBko presidentea Xabier Arzalluzek herenegun esan bezala. Ibarretxeren proposamena defendatzeko ez dela «argudio ona», eta halako adierazpenek ez dutela ezertan «laguntzen» iritzi zion.

PPko idazkari nagusi Javier Arenasen ustez, berriz, Arzalluzen proposamenaren helburua datozen udal hauteskundeetan «Batasunaren botoemaileen babesa lortzea» da. EAeko popularren presidentea Carlos Iturzaitek atzo kritikatu zuen Arzalluzen eta Ibarretxeren xedea Gernikako Estatutua «akabatzeko» dela.

PSOeko bozeramaile Jesus Calderaren aburuz, bestalde, Arzalluz eta Ibarretxe «tematuta» daude euskaldunzatatitzeko.

EA

Alternatiba integratzaile baten alde egin du alderdiak

Erredakzioa | IRUÑEA

Euzko Alkartasunaren Herrialdeko Batzordeak bilera egin zuen atzo Iruñean. Ehun bat kide egin zuten bat eta, azken urteko egoera politikoa aztertu ondoren, agiri bat onartu eta plazaratu zuten. Agiri horretan EAK «benetako gobernu alternatiba integratzaile» baten alde lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du.

«Inboluzio demokratikoa gertatu da azken urtean», azpimarratu dute agirian. Euzko Autonomi Erkidegoari dagokionez, EAK nabarmendu du argi dagoela PPk eta PSOEk ez dituztela 2001eko hauteskundeetako emaitzak onartu, eta konponbideak eskaini ordez erakundearen egonkortasunari eraso egin diotela.

Nafarroako egoerari buruz, UPN bere «aurpegirik erradikalena eta oportunistena» erakusten ari dela erran du EAK.

EZKER BATUA

«Ezkerreko gobernu» PSN gabe ere posible dela esan du Tabernak

Europa Press | IRUÑEA

Nafarroako Ezker Batuko koordinatzaile nagusi Felix Tabernak UPN Nafarroako Gobernutik aldentu eta «ezkerreko exekutibo» osa daitekeela azpimarratu zuen atzo, koalizioaren kontseilu politikoaren aurrean. Eta horretarako PSNren parte-hartzea ez dela beharrezkoa gaineratu zuen. Kontseiluak datozen hauteskundeetarako programa lantzeko egin zuen bilera atzo, eta manifestu politikoa onartu zuen, aldeko 34 bozekin, eta bi abstentziorekin.

Tabernak ezkerreko ideologia jo zuen «aldaketa soziala lortzeko motor-tzat». «Neoliberalismoaren kontrapuntu gara», erran zuen, eta Nafarroa aniztun baten alde agertu zen, «Nafarroa ezkerreko irabazteko».

UPN-REN JARRERA

Sanz: «Konplexurik gabeko erantzuna behar du Ibarretxek»

Edurne Elizondo / IRUÑEA.- «Lizarraga-Garaziko hitzarmenaz geroztiko data eta proposamen zehatz mehatxugarriek» konplexurik gabeko erantzuna behar dutela erran zuen Nafarroako Gobernuoko presidentea Miguel Sanzek atzo, UPN alderdiak Iruñean egindako Kontseilu Politikoaren bukaeran eskainitako hitzaldian. Zehazki, Juan Jose Ibarretxe EAeko lehendakariaren proposamena eta Euzko Legebiltzarrak Baltasar Garzon epailearen autoen inguruan agertutako jarrera aipatu zituen Sanzek, eta «Nafarroari elkartasuna agertzen ez diote-



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS
Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuoko lehendakaria.

nekin» elkartasunik ezin dela izan gaineratu zuen. «Nafarroaren nortasuna defendatzeko garaia da. Espainiako Gobernuak jakinen du Nafarroak Espainiaren egiturazkoa ziurtatzeko egiten duen ahalegin fidele eskertzen», azpimarratu zuen Miguel Sanzek atzo emandako solasaldian.

«Esparru nazionalistatik sortutako proposamenek» emaitzarik ez dutela izan nabarmendu zuen Nafarroako Gobernuoko presidentea, eta hori arrazoi nahikoa izan beharko lukeela EAJK Alderdi Politikoen Legearen alde egin zezan. «Harritu gaituena agertu duen alderantzizko jarrera izan da».

Atzoko ekitaldian hauteskundeetarako hautagaiak aukeratu zituen UPNk: Miguel Sanz Nafarroako lehendakartzarako eta Yolanda Barcina eta Luis Casado Iruñeko alkateetarako eta Tuterakorako.